# SANTURTZI | 2017 AURREKONTUAK





## GIZARTE-POLITIKEN ETA SANTURTZIARREN BIZI-KALITATEAREN ALDE APUSTUA

Zorroztasun ekonomikoa, zuhurtziaren irizpidea eta aurrekontu-egonkortasuna izango dira oraindik ere 2017. urterako udal-aurrekontuko ezaugarri nagusiak. Bada, urte honetan, Santurtzik 57,2 milioi euroko aurrekontua izango du guztira; 51,1 milioi euro udalarenak dira eta 6,1 , erakunde autonomoenak, besteak beste, KUI, SKA, Nuestra Señora de Begoña egoitza eta Udal Euskaltegiarenak. Iazko kontuen aldean, zenbateko horiek agerian jartzen dute aurrekontua % 3,51 hazi dela.

Aurrekontuak onestean, irizpide argiak ezarri dira, aurreko urteetako lanaren ildo berean hain zuzen.

Enplegua eta herritarrak lehenetsi dira, eta Santurtziko Udalak gure herriko ekonomia bultzatzen jarraituko du, gure kaleetan jarduera sortuko duten enplegu-politiken aldeko apustua egin baitu. Gainera, pertsonak izango dira lehenengo jarduketa-ildo horren protagonistak. Aurrekontuek izaera sozial nabarmena dute eta santurtziarren eskaerei neurri handian erantzuten diete.

### GASTUAREN BANAKETA ARLO ETA ERAKUNDE AUTONOMOEN ARABERA

| | Langileen gastuak | Funtzionamendu gastuak | Diru Laguntzak | Inbertsioak | Finantza gastuak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Alkatetza | 1.132.134 € | 145.694 € | 66.750 € | | | 1.344.579 € |
| Idazkaritza | 1.331.886 € | 91.377 € | | | | 1.423.263 € |
| Ogasun eta Ekonomia Sustapena (Enplegua, Merkataritza, Kontsumoa eta Turismoa) | 1.286.963 € | 2.219.612 € | 950.968 € | 132.277 € | 3.817.811 € | 8.407.632 € |
| Lanak eta zerbitzuak | 1.862.587 € | 8.315.981 € | | 2.169.304 € | | 12.347.873 € |
| Hirigintza eta Ingurugiroa | 910.660 € | 509.817 € | 114.000 € | 125.000 € | | 1.659.477 € |
| Gizarte Ekintza eta Berdintasuna | 1.227.498 € | 4.146.092 € | 921.627 € | | | 6.295.217 € |
| Barne Araubidea eta Udaltzaingoa | 6.025.056 € | 881.273 € | 10.000 € | | | 6.916.329 € |
| Kultura | 2.121.162 € | 2.665.714 € | 115.350 € | 80.000 € | | 4.982.227 € |
| Euskaltegia | 1.025.200 € | 99.800 € | | | | 1.125.000 € |
| Kirol Udal Institutua | 610.000 € | 3.235.100 | 275.000 € | | | 4.120.100 € |
| Nuestra Señora de Begoña Egoitza | 4.320.000 € | 1.591.000 € | | | | 5.911.000 € |
| Serantes Kultur Aretoa | 390.800 € | 2.263.165 € | 56.500 € | | | 2.710.465 € |
| | **22.243.949 €** | **26.164.629 €** | **2.510.195 €** | **2.506.581 €** | **3.817.811 €** | **57.243.166 €** |

Ikusi aurrekontua **www.santurtzi.eus** webgunean, eta 2018. urteko kontuak egiten lagundu nahi badiguzu, mezua bidali **partaidetza@santurtzi.eus** helbidera edo deitu **94 420 58 20** telefono-zenbakira.

# UDAL-AURREKONTUAREN EGITURA

**ZEHAZKI, NOLA EGITEN DA UDAL-AURREKONTU BAT?**
**ZEIN ELEMENTU HARTU BEHAR DIRA AINTZAT UDALEKO KONTUAK LANTZERAKOAN?**

**Udal-aurrekontua egiteko, hurrengo urtean izango diren diru-sarreren eta gastuen aurreikuspena egiten da** eta, jakina, gastuak ezin dira inoiz izan aurreikusi diren diru-sarrerak baino handiagoak. Kontuak azkendu ondoren, udalaren osoko bilkuran bozkatu eta onetsi behar dira. Urteak aurrera egin ahala, diru-sarrera edo gastu berriak badaude, akordio bidezko aldaketak egin daitezke.

Azaletik azalduta, udal-aurrekontuko diru-sarrerak eta gastuak honako kontzeptu hauek osatzen dituzte:

## DIRU SARRERAK

### ARRUNTAK

**Udal-zergak:** OHZ, ibilgailuak, jarduera ekonomikoak, EIOZ (eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga), etab.

**Tasak eta prezio publikoak:** zaborra, estolda-sarea eta udaleko zerbitzuak, esate baterako, KUIko abonamenduak, udal-egoitzako kuotak, musika eskolak eta abarrek sortutako diru-sarrerak.

**Bizkaiko Foru Aldundiak** lurralde historikoko udalerriei **urtero egiten dien ekarpen ekonomikoa** hedaduraren, biztanle kopuruaren eta abarren arabera. Ekarpena urtearen amaieran berrikusten da eta, aldundiak ekitaldian bildu duen diruaren arabera, udalak jasotako diruaren zati bat itzuli behar du ala ez.

Gainera, udal-aurrekontuak Eusko Jaurlaritzaren, HABEren eta irabazi-asmorik gabeko zenbait erakunderen **diru-laguntzak** ere jasotzen ditu.

Bestalde, udal-higiezinen alokairu **eta errentetatik** diru-sarrerak sortzen dira, eta badira ondare izaerako beste diru-sarrera batzuk ere.

### KAPITAL-SARRERAK

Sustatzaile pribatu batek **Santurtzin hirigintza-eragiketa** bat egiten duen bakoitzean, lurzoruaren zati bat eman behar dio udalari, edo horri dagokion dirua. Beste batzuetan, aldiz, udalari konpentsazio ekonomikoa ordaindu behar diote, eraikuntza egingo den lurzoruaren zati bat udal-titulartasunekoa delako. Nolanahi ere, diru-sarrera horiek udal-ondarea hobetzea xede duten inbertsioetarako bakarrik baliatu behar dira.

Eusko Jaurlaritzak udalari ematen dizkion **kapitaleko diru-laguntzak** azpiegituretako inbertsioetarako.

**Gerakina** gehitzea, edo gauza bera dena, urte batean gastatu ezin izan den dirua datorren urteko aurrekontura gehitzea.



# GASTUAK

## GASTU ARRUNTAK

Udaleko **beharginen** gastuak: ordainsariak eta gizarte-segurantza.

**Ondasunak eta zerbitzuak:** hornidura (argia, ura, gasa); enpresek egindako lanak, garbiketa eta lorezaintza adibidez; konpontze- eta mantentze-lanak; zentro sozialak (zahar-etxeak, eguneko zentroak, atseden-zentroa...); lokalen alokairuak, renting-ak, etab.

**Finantza-gastuak:** maileguen interesak.

**Udalak** kultura- eta kirol-erakundeei **ematen dizkien diru-laguntzak eta kuotak**; Santurtziko familiei ematen dizkien laguntza ekonomikoak (bekak, OHZrako laguntzak, gizarte-larrialdiko laguntzak, udal-laguntzak); Ranzari Mankomunitatearenak; aldundiari egiten dion ekarpena San Juan auzoko autobusagatik, etab.

## KAPITAL-GASTUAK

Udalerrian egiten diren **inbertsioak:** obrak, azpiegiturak ,etab.

**Kapitaleko diru-laguntzak:** Santurtziko herritarrei bereziki zenbait jarduketa egiteko eskaintzen zaizkien laguntzak, adibidez, igogailuak edo arrapalak jartzeko.

Maileguak **amortizatzea** edo aldundiari egindako **ekarpena itzultzea.**



Ikusi aurrekontua **www.santurtzi.eus** webgunean, eta 2018. urteko kontuak egiten lagundu nahi badiguzu, mezua bidali **partaidetza@santurtzi.eus** helbidera edo deitu **94 420 58 20** telefono-zenbakira.

*Milloika eurotan

## DIRU-SARRERAK




## GASTUAK



# 2017 AURREKONTUAK

## PARTIDARIK GARRANTZITSUENAK

Biztanleak: 46.194
2016ko abendua

## 1. KALITATE ONEKO OINARRIZKO ZERBITZUAK

| | GASTUA GUZTIRA | GASTUA/BIZTANLEA |
|---|---|---|
| Bide publikoak garbitzea eta hiri-hondakin solidoak biltzea | 4.900.000 € | 106 € |
| Argiteria publikoa eta eraginkortasun energetikoa | 2.873.408 € | 62,2 € |
| Kaleetako eta espaloietako mantentze-lanak | 941.467 € | 20,3 € |
| Parke, lorategi eta berdeguneen kalitatea | 935.400 € | 20,2 € |
| Igogailu eta komun publikoen mantentze-lanak | 207.231 € | 4,4 € |
| Animaliak jasotzeko zerbitzua, etab. | 137.000 € | 2,9 € |

## 2. SANTURTZIN GOZATZEA: KIROLA, KULTURA, AISIALDIA, EUSKARA ETA GIZARTEA

| | GASTUA GUZTIRA | GASTUA/BIZTANLEA |
|---|---|---|
| Kirol-jarduerak (KUI) | 4.120.100 € | 89,1 € |
| SKA (Serantes Kultur Aretoa) | 2.710.465 € | 58,6 € |
| Musika Eskola | 951.394 € | 20,5 € |
| Liburutegiak | 973.795 € | 21 € |
| Euskaltegia | 1.125.000 € | 24,3 € |
| Hezkuntza eta kultura | 2.494.685 € | 54 € |
| Lanbide Hastapenerako Ikastegia | 562.352 € | 12,1 € |

## 3. GIZARTE-POLITIKEN PARTIDAK

| | GASTUA GUZTIRA | GASTUA/BIZTANLEA |
|---|---|---|
| **Gure adinekoei eta mendekoei arreta eskaintzea:** | | |
| - Udal egoitza | 5.911.000 € | 127,9 € |
| - Etxez etxeko laguntza-zerbitzua | 1.415.000 € | 30,6 € |
| - Eguneko zentroak | 1.265.000 € | 27,3 € |
| - Atseden-zentroa | 312.500 € | 6,7 € |
| - Erretiratuen etxeak | 79.250 € | 1,7 € |
| **Pertsonentzako laguntzak** | | |
| - Gizarte-larrialdietarako laguntzak | 633.707 € | 13,7 € |
| - Etxerik gabeko pertsonak | 40.000 € | 0,8 € |
| - Gizarte-jantokiak | 250.000 € | 5,4 € |
| - Gizarteratzeko programak | 150.000 € | 3,2 € |
| - Erkidegoan esku hartzeko plana | 250.000 € | 5,4 € |
| **Ekarpena Ranzari Mankomunitateari** | 240.000 € | 5,1 € |
| **Droga-mendekotasunen prebentzioa** | 222.783 € | 4,8 € |
| **Emakumea sustatzea** | 291.122 € | 6,3 € |

## 4. SUSTAPEN EKONOMIKOA

| | GASTUA GUZTIRA | GASTUA/BIZTANLEA |
|---|---|---|
| Enplegua sustatzea | 1.433.772 € | 31 € |
| Merkataritza eta ostalaritzari laguntzea | 134.024 € | 2,9 € |
| Turismo sustapena | 316.832 € | 6,8 € |

Ikusi aurrekontua **www.santurtzi.eus** webgunean, eta 2018. urteko kontuak egiten lagundu nahi badiguzu, mezua bidali **partaidetza@santurtzi.eus** helbidera edo deitu **94 420 58 20** telefono-zenbakira.

## 2017. URTERAKO AURREIKUSI DIREN INBERTSIOAK

| | |
|---|---|
| Santa Eulalia kaleko eraberritze-lanak amaitzea | 675.000 € |
| Guztira: 1.250.00 € (2016. urtea: 575.000 € / 2017. urtea: 675.000 €) | |
| Juan XXIII.a kalea eta Iparragirre kalea gurutzatzen diren lekuan hiri-igogailu bat instalatzea | 134.000 € |
| Guztira: 390.890 € (2016. urtea: 256.890 € / 2017. urtea: 134.000 €) | |
| Hiri-igogailu bat instalatzea Bizkaiko Jaurerria plazan | 150.000€ |
| Guztira: 418.000 € (2017. urtea: 150.000 € / 2018. urtea: 268.000 €) | |
| Komun publiko berria | 50.000 € |
| Inbertsioak azpiegituretan Berehalako Jarduketa Brigadaren bitartez | 350.000 € |
| Ranzari parkeko pasabidea birgaitzea | 100.000 € |
| Guztira: 175.000 € (2017. urtea: 100.000 € / 2018. urtea: 75.000 €) | |
| Udal-aparkaleku eta -eraikinetarako inbertsioak | 300.000 € |
| Jarduketak Serantes mendian | 125.000 € |
| Arkitektura-oztopoak kentzea | 114.000 € |
| Inbertsioak pantalanetan | 40.000 € |
| Hiri-hondakinak biltzeko instalazioak egokitzea | 300.000 € |
| Guztira: 652.000 € (2017. urtea: 300.000 € / 2018. urtea: 352.000 €) | |
| San Juan auzoko pasabidea estaltzea | 140.000 € |
| Aste Santuko eta Gabonetako egonaldiak eta jarduerak abian jartzea | 29.000 € |
| Auzoko jaien sustapenerako apartekoa | 32.500 € |
| Udal-laguntzen gehikuntza | 30.000 € |
| Santurtzin irisgarritasunari buruzko plan partzial bat egitea | 35.000 € |

Urte honetarako udal-aurrekontuan 2,67 milioi euro gorde dira inbertsioetarako. Hala ere, aurten gauzatuko diren jarduketen zenbateko osoa hori baino askoz handiagoa izango da, 2016. urteko kontuetan partidak dituzten jarduketak egikaritzen jarraituko baitira; besteak beste honako hauek aipa daitezke: Santa Eulalia kaleko berrikuntzaren lehenengo fasea (575.000 euro), Juan XXIII kalean igogailua jartzea (256.000 euro), Nautika Eskola zaharraren eraikineko obrak (400.000 euro) eta udaletxean zein Koskojales lokalean hobekuntzak egitea (600.000 euro).

## ZORPETZE-MAILAREN BILAKAERA

Udalak banku-entitateekin 14,46 milioi euroko zenbatekoa zuen ordaintzeke aurreko ekitaldian, aurreko urteetan udalerrian dozenaka jarduketa egiteko eskatu ziren maileguengatik. Horrek esan nahi du aurreikusi baino milioi erdi gutxiago dagoela 2016. urtean egin ahal izan zen amortizazio aurreratuagatik. Hori horrela, aurreikusi da 2017. urtearen amaieran 13,1 milioi euro edukitzea ordaintzeke.

**Gaur egun, legearen arabera, Santurtzik izan dezakeen zorpetze-zifrarik handiena 52 milioi euro da.**

